



## **Ikasmina DoKS:**

**Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak**

# **Ikaskuntzan parte hartzea eta lan egoera**

**59. dokumentua**

**2018ko ekaina**



**AURKIBIDEA**

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Populazio helduaren prestakuntza .....</b>	<b>4</b>
2.1. Laginaren karakterizazioa: Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko pertsona helduak .....	4
<b>3. Pertsonen ikaskuntza jarraitua .....</b>	<b>6</b>
3.1. Pertsonen parte-hartzea ikaskuntza jardueretan azken 12 hilabeteetan.....	6
3.2. Ikaskuntza jardueretan parte-hartze jarraitua azken 4 asteetan zehar .....	10
3.3. Zer eta non ikasten da.....	13
<b>4. Ikasteko arrazoiak eta oztopoak.....</b>	<b>15</b>
4.1. Populazio heldua: ikasteko arrazoiak .....	15
4.2. Ez ikasteko argumentuak .....	19

# 1. Sarrera

Gipuzkoak, ikaskuntzan oinarritzen den lurraldea bihurtzeko helburua du ezaguerako gizartearen funtsezko oinarri bezala. Horretarako, ezagueren hobekuntza, jarrera irekia eta aktiboa hartuz egitea oinarritzkoa da, bizitza luze eta zabalean ikaskuntza arrakastarekin gauzatzeko.

Helburu honekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka departamentuak, pertsonen ikaskuntzak gizarte gipuzkoarra, oparotasun ekonomikoa, errealizazio pertsonala eta gizarte ongizatea aurrera eramateko garaian funtsezko ardatz bezala ulertzen ditu. Hau da, lurralde sozial arduratsua izateko lorpenean, ikaskuntza gako bilakatzen da.

Ikuspegi honen pean, pertsonak egunerokotasunean beraien ezagutzak, gaitasunak eta prestakuntzak indartzeko gauzaturako jarduera guztiak, ikasketak bere gain hartzen ditu bizitza guztian zehar, bizitzako eremu guztiak integratuz, nahiz eta pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala izan. Beraz, oso garrantzitsua da helburu honetara zuzenduak dauden aurrerapausoak ezagutzea eta neurtzea.

Dokumentu hau, Gipuzkoako pertsona helduek garatutako ikaskuntza jardueri buruz lortutako emaitzetan oinarritzen da, alde batetik, enplegu edo/eta jarduera profesional bat dutela adierazten dute eta bestetik, langabezian daudela adierazten dute. Bi kasuetan, ikaskuntza bizitza guztian zehar barneratzen duten bi modalitateak aztertzen dira, ikaskuntza formal eta ez formaleko modalitateak kontuan hartuz. Horrela, aipaturiko ikaskuntza burutze-unea eta ikasten jarraitzeko oztopo eta itxaropenak lantzen dira, beste gauzen artean. Azkenik, gai hauetako bakoitzak pertsonen profila kontuan hartzen du adinari, enplegu modalitateari eta lortutako ikasketa mailaren arabera, beste aldagai batzuen artean.

## 2. Populazio helduaren prestakuntza

### 2.1. Laginaren karakterizazioa: Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko pertsona helduak

#### 25 eta 64 urte bitarteko okupatutako pertsonen %44k goi mailako ikasketak ditu

Ondorengo taulak, Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko pertsona helduek bizitza guztian zehar izan duten ikaskuntzari buruzko galdeketa parte hartu dutenen ezaugarriak islatzen ditu. Horretarako, okupatua eta langabezian dagoenaren irizpidea hartu da, generoaren, adinaren eta heziketa-mailaren arabera banaketa eginaz.

Okupatutako pertsonen inguruan nabarmentzeko alderdi nagusiak dira:

- Generoaren arabera, banaketa oso orekatua dago. Ikasten duten eta ordaindutako enplegua duten populazioaren artean (okupatuak), %51,4 populazio maskulinoari dagokio, eta gainerakoa, %48,6a populazio femeninoari.
- Galdeketa egindako populazioaren adin segmentuaren arabera banaketa ere oso orekatua dago, eta adina aurrera doan heinean murrizketa txiki bat nabarmentzen da portzentaietan. Horrela, heren bat 35 eta 44 urtekoen artean kokatzen da (%36), gutxi gorabehera bostetik batek 25 eta 34 urte bitartean ditu (%20), laurden batek 45 eta 54 urte bitartean ditu (%27), eta zazpi pertsonatik batek 55 eta 64 urte bitarte ditu (%16).
- Ikasketa-mailari dagokionez, okupatutako hamar pertsonetatik lauk hirugarren mailako ikasketak ditu (%44), bigarren mailako ikasketak eta ikasketa profesionalak dituen taldeari dagokionaren antzeko proportzioa (%41). Galdeketa parte hartutakoen %15ak soilik ditu lehen mailako ikasketak.

**1. taula Populazio heldua, generoaren, adinaren eta ikasketa mailaren eta lan egoeraren arabera**

25 eta 64 urte bitarteko biztanleen portzentaia

	Gutira	Okupatuak	Langabeak
<b>Generoa</b>			
Emakumezkoak	50,1	48,6	45,2
Gizonezkoak	49,9	51,4	54,8
<b>Adina</b>			
25 - 34 urte	19,0	19,7	24,7
35 - 44 urte	29,2	36,2	30,1
45 - 54 urte	25,1	26,6	27,4
55 - 64 urte	26,6	17,5	17,8
<b>Ikasketa maila</b>			
Lehen mailako ikasketak	17,5	15,2	20,5
Bigarren mailako ikasketak	42,3	41,0	47,9
Goi mailako ikasketak	40,2	43,8	31,5
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

**Ikasten duten eta langabezian dauden pertsonen %48ak bigarren mailako ikasketak ditu**

Aurreko taulako datuetan oinarrituta, langabezian dauden pertsonen inguruan nabarmentzeko alderdi nagusiak ondorengoak dira:

- Generoari dagokionez, okupatutako taldeak baino oreka txikiagoa dauka: guztizko eta ikasten duen populazioaren %55 gizonezkoa da, eta gainerako %45a emakumeei dagokie.
- Galdeketa egindako populazioaren adin segmentuaren arabera banaketa nahiko orekatua da, eta adinak ez du eragin nabarmenik ikaskuntzan. Horrela, heren bat 35-44 urte bitartekoen artean kokatzen da (%30), laurden batek 25 eta 34 urte bitartean ditu (%25), beste laurden batek 45 eta 54 urte bitartean ditu (%27), eta zazpi pertsonetatik batek 55 eta 64 urte bitartean (%18).
- Langabezian dauden pertsonen heren batek hirugarren mailako ikasketak dituzte (%32), bigarren mailako eta ikasketa profesionalak dituztenak baino proportzio txikiagoa, ia erdia suposatzen dutelarik (%48). Lagineko parte-hartzaileen gainerako %21ak lehen mailako ikasketak ditu.

# 3. Pertsonen ikaskuntza jarraitua

## 3.1. Pertsonen parte-hartzea ikaskuntza jardueretan azken 12 hilabeteetan

### Gipuzkoako okupatutako populazioaren erdiak azken urtean ikaskuntza jardueretan parte hartu du


Gipuzkoan bizi den populazio helduaren %46ak, azken urtean, ikaskuntza jarraituko jardueraren batean parte hartu duela baieztatzen du, aipaturiko jardueretan neurri handi batean parte-hartzen duena populazio femeninoa izanik (%48, gizonen %44ren aurrean).

Okupatutako populazioari dagokionez, bere parte-hartze ratioa nagusia da populazioaren guztizko batez bestekoari dagokionez, okupatutako populazioaren erdiak (%51) ikasketa jardueraren bat egiten du (guztizko batez bestekoaren %46ren aurrean). Generoagatiko ezberdintasuna orekatuagoa da parte-hartzean, arinki emakumeen kasuan nagusiagoa izanez (%53, gizonen %49ren aurrean).

Azkenik, ikaskuntza jardueretan populazio langabeak duen parte-hartzeak batez besteko datu txikiena erregistratzen du (%43) eta generoen arteko desberdintasunik handienak. Emakume langabeen erdiak baino gehiagok ikaskuntzan parte hartzen dute (%52), gizonen kasuan berriz heren batek soilik (%35), ehuneko 16,5 puntuko desberdintasuna suposatuz.

### 1. grafikoa Populazio heldua eta ikasketako parte-hartzea, generoaren arabera

25 eta 64 urte bitarteko biztanleria helduaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.


### Populazio helduaren parte-hartzea ikasketza jardueretan gutxitu egiten da adina handitu ahala, populazio langabeen izan ezik

Ikasketza jardueretako parte-hartzea biztan zehar txikiagotu egiten da adina handitu ahala, langabe-taldean izan ezik. Identifikatutako talde eta adin talde bakoitzean lortutako emaitzetan oinarrituz, ikusten da:

- 25 eta 64 urte bitarteko pertsona helduen erdiak parte hartu du biztan zehar, azken urtean, ikasketza jardueretan. Zehazki, 35 eta 44 urte dituzten artean parte-hartze handiagoa erregistratzen da (%55). Parte-hartze txikiena erregistratzen den adin-tartea 55 eta 64 urte bitartean kokatzen da (%32), erretiro adinetik hurbilena.
- Berriz ere, okupatutako pertsonen artean, 25 eta 44 urte bitartekoen erdiak baino gehiagok parte hartu du ikasketza jardueraren batean, 35-44 urte bitartekoen datua azpimarratuz (%60). Okupatutako populazioaren parte-hartzea handiagoa da guztizkoan eta populazio langabeen oinarritu ezker, 25-34 urte bitartekoak salbu.
- Populazio langabeen dagokionez, 25-34 urte bitarteko adin taldea da parte-hartze handiagoa erregistratzen duena (%56), eta 45-54 urte bitartekoak

ondoren (%45), parte-hartzearen eta adinaren artean ematen ari zen erlazio negatiboa apurtuz.

**2. grafikoa Populazio heldua eta ikaskuntza parte-hartzea, adinaren arabera**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

**Partaidetza-tasa areagotzen da lortutako ikasketak-maila handitu ahala**

Ikusi den bezala, ikaskuntza jardueretan pertsonen parte-hartzea handitzen da heziketa-maila handiagora eta/edo ikasketak-maila handiagora heldu ahala (formalak). Gertaera hau analizatutako hiru populazio-taldeetan islatzen da.

Horrela, goi mailako ikasketak dituen populazio helduaren %63k parte hartu du azken urtean zehar ikaskuntza jardueretan, ia bi aldiz handiagoa den ehunekoa lehen mailako pertsona helduekin alderatuta (%35). Tarte handira, ordea, lehen mailako ikasketak dituztenak daude (%16).

Populazio okupatuari dagokionez, lehen mailako ikasketak dituztenen parte hartzea nabarmena da, daturik txikiena erakusten badute ere, gehikuntza handia suposatzen baitu heziketa-maila hori duten batez besteko populazio helduari dagokionez (%29;






ehuneko +12,8 puntu). Gainontzean, hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonak dira gehien parte hartzen dutenak (%66).

Pertsona langabeen kasuan, lanik gabeko pertsonen eta goi-mailako ikasketak dituzten laurik hiruk (%74) ikaskuntza jardueretan parte hartzen dute, ikusitako datu guztien artean parte-hartze daturik handiena lortuz. Izan ere, bigarren mailako ikasketak dituzten langabeen parte hartzearen kopurua bikoizten du (%34), eta lehen mailako ikasketak dituztenen zenbatekoa (%13) boskoiztu.

### 3. grafikoa Populazio heldua eta ikaskuntzan parte hartzea, ikasketa-mailaren arabera

25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoak (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


### 3.2. Ikaskuntza jardueretan parte-hartze jarraitua azken 4 asteetan zehar

#### 25-64 urte bitarteko populazio okupatuaren %20ak era jarraituan ikasten du

Nahiz eta Gipuzkoako pertsona okupatuena ia erdiak ikaskuntza jarraituko jarduerak azken urtean egin dituztela baieztatzen duten (%46), parte-hartzea nabarmenki murrizten da ikasketa burutzeko epea kontsulta egin aurreko lau asteetara murrizten bada. Modalitate honi ikasketa jarraitua esaten zaio.

Hurrengo grafikoan ikusi dezakegun bezala, parte-hartzea populazio langabearen kasuan handiagoa da. Generoari dagokionez, hiru kasuetan emakumeek ikasketa jarraituko jardueretan gehiago parte hartzen dute, emakume langabetuen %24ak parte hartzen duelarik.

#### 4. grafikoa Populazio heldua eta ikaskuntzan parte-hartze jarraitua, generoaren arabera




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

### 25-34 urte bitarteko populazioaren parte-hartzea ikaskuntza jarraituan kasu guztietan handiago da

Populazio heldu totalaren eta populazio okupatuaren emaitzak konparatzen badira, adin-taldeen arteko desberdintasunek antzeko proportzioari jarraitzen diotela ikusten da, eta bi kasuetan adinarekiko beheranzko joera, okupaturako populazioaren parte-hartzea zertxobait handiago izanik (25-34 urte bitarteko taldean izan ezik).

Hala ere, populazio langabearen kasuan, aipaturako proportzioak ez dira jarraitzen eta adinaren eta parte-hartzearen arteko erlazio negatiboa ez da gauzatzen hain garbi. Horrela, 25-34 urte bitarteko pertsona langabetuen parte hartze datua nahiz eta analizaturakoetako datuetan altuena izaten jarraitu, 45-54 urte dituztenek jarraitzen diete (%25), eta ez ondorengo talde hurbilenak (35-44 urte).

### 5. grafikoa Populazio heldua eta ikaskuntzan parte-hartze jarraitua, adinaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

### Goi mailako ikasketak dituzten pertsona langabeen ia erdiak ikaskuntza jarraituko jardueretan parte hartzen dute

Aipatu den bezala, ikaskuntza jardueretako parte-hartzea handitu egin da populazio helduaren heziketa-maila handitzearekin. Kontuan hartuta kontsulta baino 4 aste lehenago egindako ikaskuntza, parte-hartze kopurua jaitsi dela nabarmena da, baina




lortutako ikasketa-maila maximoen arteko desberdintasunak oso adierazgarriak izaten jarraitzen dute.

Hiru egoeretan aztertutako emaitzek goranzko joera eta proportzioan jarraitzen dute (ikasketa-mailari dagokionean). Horrela, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen partaidetza tasak ez du aldaketa handirik jasaten analizatutako populazioaren arabera, %6,3ren eta %9,7ren artean mugitzen da kasu guztietan, eta bigarren mailako ikasketak dituztenekin berdina gertatzen da (%10,7 eta %14,3 artean), kasu honetan daturik garaiena pertsona langabeei egokituz.

Azkenik, hirugarren mailako ikasketak dituzten taldeari dagokionez, daturik handiena langabeen kasuan erregistratzen da, ikasketa jarraituko parte-hartzea nabarmenki areagotzen da, ia langabe taldearen erdia hartuz (%48), ehuneko +17,4 puntu gehiago hirugarren mailako ikasketan dituzten okupatutako populazioa baino.

**6. grafikoa Populazio heldua eta ikaskuntzan parte-hartze jarraitua, ikasketa-mailaren arabera**



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.



### 3.3. Zer eta non ikasten da

#### Azken urtean ikasi dutela esaten dutenen artean ikaskuntza ez formala orokortuago dago, kasu guztietan

Populazio helduak egindako ikaskuntza jarduerak<sup>1</sup>, txosten honetan bi multzotan banatzen dira:

- Ikaskuntza formala (edo araututa), egitura bati jarraitzen dion heziketa da, titulu edo ziurtagiri bat lortzeko helburuarekin.
- Ikaskuntza ez formala (edo ez arautua)<sup>2</sup>, ezaguerak edo trebetasunak lortzeko ikasketa patroia bati dagokio, programa bati eta eduki zehatzei jarraituz, baina azken emaitza bezala ez dute titulu ofizialaren lorpenik.

#### 2. taula Ikasten duen populazio helduaren bilakaera, ikaskuntza motaren arabera

Biztanleriaren ehunekoa (%)

	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>42,1</b>	<b>40,7</b>	<b>41,0</b>
Formala	8,8	9,2	10,0
Ez formala	36,7	35,3	35,9
<b>Okupatuak</b>	<b>52,4</b>	<b>50,4</b>	<b>51,0</b>
Formala	10,8	10,1	11,0
Ez formala	45,8	45,0	45,2
<b>Langabezia</b>	<b>43,0</b>	<b>45,7</b>	<b>42,5</b>
Formala	12,9	15,2	15,1
Ez formala	35,2	34,8	35,6

Erantzun anizkuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

Horrela, azken hiru urteetan zehar, ikaskuntza jardueretako parte-hartzearen bilakaeran ez da aldaketa handirik eman. Zentzu honetan, aldaketarik adierazgarriena populazio langabearen ikaskuntzan eman da, ehuneko -3,2 puntuko aldaketarekin soilik.

<sup>1</sup> Europako Batzordeak eta Eurostat-ek proposatutako definizioarekin bat.

<sup>2</sup> Ikastaro ezberdinen parte hartzea barneratzen da (iraupen-murizketarik gabe) lantokian edo heziketa-zentroetan (edo antzekoetan), beste ikasketa modalitate batzuk bezala, mintegietako, jardunaldietako, konferentzietako, kongresuetako, eta abarretako asistentzia. Modalitate presentzialekoak edo birtualekoak izan daitezke.

Berriz ere, lehenago aipatu bezala, ikaskuntza formaleko parte-hartze maila ikasketa ez formalekoa baino txikiagoa da aztertutako kasu guztietan.

Zehatzago aztertuz, ikasketa ez formaleko parte-hartzerik altuena populazio okupatuaren zenbatekoan eman da batik bat (2018an %45), jarduera formaletako parte-hartzea berriz langabe-taldearen artean handiagoa da (2018an %15).



# 4. Ikasteko arrazoiak eta oztopoak

## 4.1. Populazio heldua: ikasteko arrazoiak

**Motibazio profesionalak nagusitzen dira ikasten duten pertsonen artean, kasu guztietan**

Egindako galdeketaren arabera, 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen bizi guztian zehar ikaskuntza jarduerak egiteko arrazoiak bi talde handitan sailkatzen dira: arrazoi profesionalak eta arrazoi pertsonalak.

Generoaren ikuspuntutik, okupatutako populazioaren kasuan, ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko orduan emakumeak arrazoi profesionalak gehiago argudiatzen dituztenak dira (%57; gizonezkoak %43), gizonak dira berriz (%55; emakumeak %45) parte hartzeko arrazoi pertsonalak gehiago darabiltzatenak.

Bestalde, ikasketa ez formalari dagokionez, generoaren araberako emaitzek proportzio antzekoagoari eta egonkorragoari jarraitzen diote, motibazio profesionalak nagusitzen direlarik (%85 gizonezkoen artean; %83 emakumeetan).

Populazio langabeari dagokionez, ikaskuntzan parte-hartzearen batez besteko datu orokorrak berdin-berdinak dira. Bestalde, generoaren arabera, lehenago aipatutako joera alderantzikoa bilakatzen da: ikasketa formalean emakumeak dira arrazoi pertsonalak gehiago argudiatzen dituztenak (%58; gizonezkoak %43), gizonak arrazoi profesional gehiago argudiatzen dituzte berriz (%75; emakumeak %25).

Ikasketa ez formala egiten duten populazio langabeari dagokionez berriz, emakumeak parte hartzeko arrazoi profesionalak gehiago argudiatzen dituztenak dira (%69, ehuneko 38,4 puntu gehiago arrazoi pertsonalekin alderatuz), nahiz eta

arrazoi profesionalak gizonengan ere nagusitu baina neurri txikiagoan (%53, ehuneko 5,2 puntu gehiago pertsonalekin alderatuta).

### 3. taula Pertsona helduen ikasketarako motibazioa, egindako ikaskuntza motaren arabera (%)

Ikasi duten 25 eta 64 urte bitarteko populazioaren portzentaia (%)

		Guztira	Gizonak	Emakumeak
Okupaturtako populazioa	<b>Ikasketa formala</b>			
	Arrazoi profesionalak	50,0	45,2	57,1
	Arrazoi pertsonalak	50,0	54,8	42,9
	<b>Ikasketa ez formala</b>			
	Arrazoi profesionalak	84,1	85,3	83,0
	Arrazoi pertsonalak	15,9	14,7	17,0
Populazio langabea	<b>Ikasketa formala</b>			
	Arrazoi profesionalak	61,9	75,0	42,5
	Arrazoi pertsonalak	38,1	25,0	57,5
	<b>Ikasketa ez formala</b>			
	Arrazoi profesionalak	61,5	52,6	69,2
	Arrazoi pertsonalak	38,5	47,4	30,8

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

### Lana hobeto egitea eta/edo perspektiba laboralak hobetzea eta ziurtagiri bat lortzea, okupaturtako populazioaren arrazoi nagusiak ikaskuntza formala egiteko

Ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeko arrazoi profesionalen artean, okupaturtako populazioaren lau pertsonetatik bostek argudiatzen du "nire lana hobeto egitea eta/edo nire perspektiba profesionalak hobetzea" (%83), "ziurtagiri bat lortzea"-k (%81) jarraituta. Nahiz eta bi arrazoi hauek nabarmendu, gainerako arrazoiak gutxienez %50etan aipatzen dira ("nire berezko negozioa sortzea" salbu, %15 soilik argudiatzen duelarik).

Hala ere, pertsona langabeen kasuan, motibazioak polarizatuago daude enplegu bat lortzean edo lan bat lortzeko egoera pertsonala hobetzean. Horrela, pertsona langabeen %93k ikaskuntza formala egin zutela argudiatzen dute "lana lortzeko nire



aukerak handitzea" eta "ziurtagiri bat lortzea" lortzeko, distantzia batera "nire lana hobeto egitea eta/edo nire perspektiba profesionalak hobetzea"-k jarraiki (%70).

#### 4. taula Ikaskuntza formalerako arrazoiak

	Pertsonen %	
	Okupatuak	Langabeak
<b>Nire lana eta/edo perspektiba profesionalak hobetu</b>	82,7	69,8
<b>Enpresaz aldatzeko nire aukera handitu</b>	48,1	7,4
<b>Lanaz edo lanbidea aldatzeko nire aukerak handitzea</b>	51,9	7,4
<b>Nire berezko negozioa sortzea</b>	15,4	8,6
<b>Lana lortzeko nire aukerak handitu</b>	59,6	92,6
<b>Ziurtagiri bat lortu</b>	80,8	92,6
<b>Nire eguneroko bizitzan ezaguerak edo teknika erabilgarriak lortzea</b>	75,0	77,2
<b>Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea</b>	90,4	100,0
<b>Jendea ezagutzea/dibertsioagatik</b>	42,3	7,4

Erantzun anizkuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. *Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka* Departamentua.

Izaera pertsonaleko arrazoiei dagokienez, aztertutako bi taldeetako arrazoi nagusietan antzeko patroiari jarraitzen zaio. Horrela, okupatutako pertsonen argudiatzen dituzten arrazoi nagusiak dira "Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea" (%90) "Nire eguneroko bizitzako ezaguerak edo teknika erabilgarriak lortzea (%75)". Populazio langabearen kasuan, ia pertsona guztiek ikasketa formala egiten dute "Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea" (%100), "Nire eguneroko bizitzan ezaguerak edo teknika erabilgarriak lortzea"-k jarraiki (%77).

#### **Lana hobeto egin nahi izatea eta/edo perspektiba profesionalak hobetzea, okupatutako pertsonen arrazoi nagusiak ikaskuntza ez formalean parte hartzeko**

Ikasketa ez formalari dagokionean, okupatutako pertsonen motibazio profesionalen artean nabarmentzen da "Nire lana eta/edo perspektiba profesionalak hobetzea" (%91), distantzia handira "ziurtagiri bat lortzea"-k (%48) jarraiki. Arrazoi pertsonalen kasuan, argi eta garbi "Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea" (%92) nabarmentzen da.

Pertsona langabetuei dagokienez, emaitzak arrazoi profesionalen kasuan gutxiago polarizatuta daude. Horrela, aipaturiko taldeko %78k ikasketa ez formala egin zuten “Lana lortzeko nire aukerak handitzeko”, “ziurtagiri bat lortzeko” arrazoiak jarraiturik (%69). Arrazoi pertsonalen kasuan, ia pertsona langabe guztiek “Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea” argudiatzen dute (%97).

### 5. taula Ikaskuntza ez formalerako arrazoiak

Pertsonen %

	Okupatuak	Langabeak
<b>Nire lana eta/edo perspektiba profesionalak hobetu</b>	91,1	67,4
<b>Enpresaz aldatzeko nire aukera handitu</b>	12,6	13,5
<b>Lanaz edo lanbidea aldatzeko nire aukerak handitzea</b>	12,6	24,1
<b>Nire berezko negozioa sortzea</b>	8,4	5,8
<b>Lana lortzeko nire aukerak handitu</b>	22,4	78,1
<b>Ziurtagiri bat lortu</b>	48,1	69,3
<b>Nire eguneroko bizitzan ezaguerak edo teknika erabilgarriak lortzea</b>	64,0	69,1
<b>Interesatzen zaidan materiako ezaguerak edo teknikak lortzea</b>	91,6	96,9
<b>Jendea ezagutzea/dibertsioagatik</b>	21,5	21,3

Erantzun anizkuna

*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.*

## 4.2. Ez ikasteko argumentuak

### Ordutegien bateraezintasuna, ikasketa jardueretan parte ez hartzeko arrazoi nagusia

Lehen esan bezala, Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko populazioaren %54ak azken urtean inongo ikasketa jardueretan parte hartu ez duela baieztatzen du.

Adierazitako arrazoi nagusia aldatu egiten da pertsona okupatuena eta langabezia daudenen artean. Pertsona okupatuena erdiak (%58) "prestakuntza lan-ordutegiarekin bateraezina" dela diote, "familiako erantzukizunekin ezin bateratzea" dioten pertsonak jarraiki (%39).

Langabezia daudenen arabera, ez ikasteko oztopo nagusia motibazioa eza (%44) eta prestakuntza kostuak jasan ezin izatea (%40) dira. Zentzu horretan, ikusten da enplegurik gabe daudenen kasuan kostuari aurre egin ezin izateak pisu handiagoa duela (ehuneko +24,4 puntu, okupatuta daudenetan baino handiagoa).

### 6. taula Populazio helduaren arrazoiak ez ikasteko

Azken urtean ikasketa jarduerarik egin ez duten 25 eta 64 urte bitarteko populazioaren %

	Okupatuak	Langabeak
Formakuntza laneko ordutegiarekin bateraezina	58,2	10,5
Erantzukizun familiarrekin ezin bateratzea	38,8	30,6
Motibazio falta	22,4	44,1
Ez dudala behar uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	18,5	4,9
Ez daukat adin egokia, helduegia nahiz	8,2	12,7
Garestiegia da, ezin dut onartu	15,5	39,9

Erantzun anizkuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.



Izenburua: Ikaskuntzan parte hartzea eta lan egoera  
59. Dokumentua , 2018 apirila

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako  
Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lantzea: IKEI, research & consultancy S.A.

Eremu ikerketa: Datakey, S.A.

